

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2011ko ABENDUAREN 1ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2011ko abenduaren 1ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: *Gotzon Jauregi Sarasola zinegotzia 19.45 orduetan bertaratzen da.*

Karlos Irazu Muñoa
Imanol Aranzabal Lasa
Jon Tejeria Otermin

Aritz Usandizaga Larrañaga zinegotzia 19.50 orduetan bertaratzen da.


Bere ezin etorria azaltzen dute: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
 - 2011ko azaroaren 10ean egindako ohiko bilkura
 - 2011ko azaroaren 15ean egindako ez-ohiko bilkura
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Larraulgo Sorozelai 41 eskubian egindako ezkutuko obren azterketa, hala bada.**
- 4. Larraulgo Beobide Erdikoa baserriaren teilatuan telefonia mugikorreko antena bat jartzeko baimena dela eta Gipuzkoako Foru Aldundiak igorritako txostenaren azterketa, hala bada.**
- 5. Manuel Larramendi Kultur bazkunari 2011 urteari dagokion ekarpenaren kitapena burutzea, hala badagokio.**
- 6. Larraulgo hainbat gurasoek eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

7. Erantzukizun zibila eta ondasun higiezinetan gertatu daitezkeen kalteei aurre egiteko aseguruen berritzea, hala bada.
8. Fakturak eta ordainketak.
9. Beste batzuk.
10. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2011 urteko urriaren 10eko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- ▣ 2011 urteko urriaren 15eko Udalbatzaren ez-ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik ez dituela ebazpenik eman, berri ematen du Idazkari-kontuhartzaile andreak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

Ondoren Alkate-Lehendakariak proposaturik eta bertaratuek aho batez onarturik seigarrengo puntua aztertzen da.


SEIGARREN PUNTUA

LARRAULGO HAINBAT GURASOEK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik larraulgo hainbat gurasoek eginiko eskaera non ondorengo dioen:

“Larraulgo udal-taldeari:

Idatzi honen bitartez Psikomotrizitate jarduera aurrera eramateko gainerako eskolaz kanpoko ekintzek jasotzen duten diru-laguntza eskatu nahi da eta era berean, iazko saioen nondik norakoak azaldu.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Iaz, 14 ikaslek parte hartu zuten eskolaz kanpoko ekintza honetan eta balioanitz gelaen zati bat psikomotrizitate saioak eskolaz kanpo nahiz eskolan bertan modu egokian burutzeko beharrezko materialez hornitu zen.

*Jarraian, iaz jasotako diru-laguntza (350€) zertan erabili zen laburtzen da (*ordain-agiriak amaieran):*

<i>Puff, 2x2 metrotako ohiala eta relleoa</i>	<i>75.60€</i>
	<i>25€</i>
	<i>17.50€</i>
	<i>10€</i>
<i>120x60x40 ruloa</i>	<i>213.20€</i>
<i>Ontzi, kutxa eta palanganak</i>	<i>10€</i>
GUZTIRA	351,30€

2011-2012 ikasturtean iaz hasitako psikomotrizitate saioekin aurrera jarraituko da. Jarduera asteartean arratsaldeko 5etatik 6etara luzatuko da eta irakaslea, iaz bezala, Arantza Iruretagoyena izango da.

Besterik gabe, eskaera kontuan hartuko delakoan, agur t'ardi, "

Alkate-Lehendakari jaunak hitza hartzen du eta bertaratuei azaltzen die, 2011-2012 urterako Larraulgo Udalak, Aiztondo Mankomunitatearen bitartez, 4 eskolaz kanpoko ekintzak finantziatuko dituela, horretarako diru-kopuru bat finkatu duelarik eta Psikomotrizidade ekintza 5-na da.


Ondoren Alkate-Lehendakari jaunak O.U. andreari hitza ematen dio, ondorengoa diolarik:

Diru-kopuru bat finkatzen bada eskolaz kanpoko ekintzak finantzatzeko, antolatzen diren ekintza guztien artean dirua banatze egokiagoa dela eta ez ekintza kopuru finko batentzat. Gainera O.U. andreak azaltzen du, diruz-lagundutako 4 ekintzen artean badaudela 2 ez dutenak Aiztondo Mankomunitateak eskatzen dituzten baldintza guztiak betetzen. Beraz, adostutako diru-kopurua ekintza guztien artean banatzeko eskaera luzatzen die batzarkideei.

Gaia azterturik, eta Aiztondo Mankomunitateko ordezkaria Udalbatza honetara ezin izan duenez etorri, bertaratuek, aho batez, erabakitzen dute gaia mahai gainean uztea hobeto aztertu arte.

HIRUGARREN PUNTUA

LARRAULGO SOROZELAI 41 ESKUBIAN EGINDAKO EZKUTUKO OBREN AZTERKETA, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Batzarkideak aho batez, gaia mahai gainean uztea erabakitzen dute hurrengo Udalbatzararte.

LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO BEOBIDE ERDIKOA BASERRIAREN TEILATUAN TELEFONIA MUGIKORREKO ANTENA BAT JARTZEKO BAIMENA DELA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK IGORRITAKO TXOSTENAREN AZTERKETA, HALA BADA

Batzarkideak aho batez, gaia mahai gainean uztea erabakitzen dute hurrengo Udalbatzararte.

BOSTGARREN PUNTUA

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNARI 2011 URTEARI DAGOKION EKARPENAREN KITAPENA BURUTZEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik 2011 ekitaldirako Manuel Larramendi Kultur Bazkunak “Beterri-Aiztondo gerora bidean” egitasmoa dela eta Larraulgo Udalbatzak 2011eko martxoaren 3an erabaki zuela aurkeztutako egitasmorako 2.000,00€ ekarpena egitea, aipaturiko diru kopuruaren % 60^a ordaintzeko erabakia hartu zuelarik.

Ikusirik Manuel Larramendi Kultur Bazkunak, aurkeztu dituela:

-2011. Urteko gastu eta diru-sarreraren kitapena, egitasmoz egitasmo.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: “Beterri Aiztondo gerora bidean “ 2011 ekitaldirako onestutako aurrekontuaren, hau da, 2.000,00 eurotako kopuruaren % 40aren ordaintzeta burutzea, hau da, 800 euro.

ZAZPIGARREN PUNTUA

ERANTZUKIZUN ZIBILA ETA ONDASUN HIGIEZINETAN GERTATU DAITEZKEEN KALTEEI AURRE EGITEKO ASEGURUEN BERRITZEA, HALA BADA

Ikusirik Erantzukizun zibila eta ondasun higiezinetan gertatu daitezkeen kalteei aurre egiteko aseguru berritzeko garaia iritsi dela.

Ikusirik hiru aseguru korreduriei eskatu zaiela, Larraulgo Erantzukizun zibila eta ondasun higiezinetan gertatu daitezkeen kalteei aurre egiteko aseguru egiteko aurrekontuak, ondorengoak izanik:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- AXA SEGUROS
- YOKO GARBI Correduria de Seguros
- MAPFRE EMPRESAS

Aipaturiko hiru aurrekontuak azterturik, ikusten da Mapfre empresak aurkezturikoa egokiena dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Erantzukizun zibila eta ondasun higiezinetan gertatu daitezkeen kalteei aurre egiteko aseguru Mapfre empresas Aseguru etxeari esleitzea, bere zenbatekoa 1.720,57 euro direlarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri, AXA SEGUROS, YOKO GARBI Correduria de Seguros eta MAPFRE Empresas Aseguru etxeari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA FAKTURAK ETA ORDAINKETAK


Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

BABESA SUZAI	639,52
BABESA SUZAI	93,02
KEY-LAN	50,36
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	35,40
MRW	8,24
REPSOL	58,21
MOVISTAR	17,95
MOVISTAR	81,81
MOVISTAR	20,47
MOVISTAR	89,30
IBERDROLA	17,11
IBERDROLA	11,19

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **1.122,58** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BEDERATZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

9.1. DINA 7 KULTUR ELKARTEAK AURKEZTURIKO MEMOMIA ETA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik DINA 7 Kultur elkarteak aurkezturiko 2011 urteko Larraulgo Ekomuseoaren memoria.

Ikusirik DINA 7 Kultur elkarteak eginiko eskaerak, ondorengoak direlarik:

- Bisita gidatuen zerbitzua bermatzeko 3.500 euroko diru-laguntza eskaera.
- Jartzeko dauden bai Larraulgo sarreran eta bai plazan bertan museoko seinalizazioa jartzea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: DINA 7 Kultur Elkarteak aurkezturiko 2011 urteko Larraulgo Ekomuseoaren memoria onestea.

BIGARRENA: DINA 7 Kultur Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera mahai gainean uztea, 2012 urteko aurrekontuak aztertu arte.

HIRUGARRENA: DINA 7 Kultur Elkarteari jakinarazi, seinalizazio eskaerari buruz, Larraulgo Udalak berriro gaia aztertuko duela.

LAUGARRENA: DINA 7 Kultur Elkarteari erabaki hauen berri ematea.


9.2. LARRAULEN EKIPAMENDU PUBLIKO BAT ERAIKI BEHAR DEN ORUBEA ONURA PUBLIKO ETA GIZARTE-INTERESKOTZAT JOTZEA

Ikusirik Larraulen, ekipamendu publiko bat egiteko asmoa dagoela Udaletxea kokatuta dagoen atzeko lorategian. Aipaturiko orubea, onura publiko eta gizarte-intereskotzat deklaratu nahi delarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Larraulen ekipamendu publiko bat egingo den orubea, hau da, Udaletxea kokatuta dagoen atzeko lorategian, onura publiko eta gizarte-intereskotzat deklaratzeko.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

9.3.GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIETAKO GURASO ELKARTEEN KOORDINAKUNDEAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik Gipuzkoako Eskola txikietako guraso elkarten koordinakundeak aurkezturiko eskaera, non ondorengo dioen:

“Gipuzkoako Eskola Txikietako Guraso Elkarten Koordinakundea eta Eskola Txikietako Irakasleen Koordinakundea Herri eta Auzo txikietako eskolei buruzko ikus-entzunezko dokumentala burutzen ari da, eskola txikien errealitatera hurbildu eta honen berri zabaltzeko helburuarekin. Gutun honi erantzen diogun dokumentuan dituzue xehetasunak.

Guraso Elkarten Koordinakundeak proiektu honetan partaide izan nahi ditu Eskola Txikiak dituzten Gipuzkoako udal guztiak, eta beronen finantzaketan parte hartzea gonbidatzen zaituzte. Proiektuak 24.378€-ko aurrekontua du (ikus-eranskina). LARRAULGO Herri Eskola proiektu honen parte delarik, 2011 edo 2012ko aurrekontuetatik 500€-ko diru-ekarpena egin dezan proposatzen diogu zuk ordezkatzeko duzun Larraulgo Udalari. Udal denek ekarpena ezinbestekoa da proiektua aurrera ateratu ahal izateko.

GETGEK-aren KONTU KORRONTEA: 2101 0069 17 0010191054

Diru ekarpena egiten duten udal eta erakundeak dokumentalaren kredituetan eta ondorengo promozio kanpainan azalduko dira babesle gisa eta dokumentalaren 5 kopia jasoko dituzte.


Aldez aurretik eskerrak emanez...”

Gaia aztertutik, Udalbatza honek aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Gipuzkoako Eskola txikietako guraso elkarten koordinakundeak eginiko eskaera onestu, hau da, 500€-ko diru-ekarpena egitea, Gipuzkoako Eskola Txikietako Elkarten Koordinakundea eta Eskola Txikietako Irakasleen Koordinakundea Herri eta Auzo txikietako eskolei buruzko burutzen ari diren ikus-entzunezko dokumentalaren finantzaketarako.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Eskola txikietako guraso elkarten koordinakunderi ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

9.4. AGIÑAZABAL HANDI BASERRIKO LURRETAN PABILOI BAT EGITEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ESKATURIKO DOKUMENTAZIOAREN IGORPENA, HALA BADA

Ikusirik 2011ko azaroaren 10ean izandako Udalbatzarrean, erabaki zela, K.I. jaunak eginiko eskaera, hau da, Agiñazabal Handi baserriaren lurretan pabiloi bat egiteko obra baimena eskaera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza departamentura igortzea, zegokion txostena egin zezan.

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza departamentuak dagokion txostena egin aurretik, Agiñazabal Haundi baserriaren lurretan jarri nahi duen pabiloiaren biabilitate plana eta pabiloiari buruzko distribuzio planoak behar duela.

Ikusirik K.I. jaunak Udal honetan aurkeztu dituela aipaturiko biabilitate plana eta pabiloiari buruzko distribuzio planoak .

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Agiñazabal Haundi baserriaren lurretan pabiloi bat egiteko K.I. jaunak Udaletxe honetan aurkeztutako dokumentazioa, hau da, jardueraren biabilitate plana eta pabiloiari buruzko distribuzio planoak Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza departamentura igorri, azken honek dagokion txostena egin dezan.

HAMAIRUGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkeztu.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.30 orduak direnean Alkate orde jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA